



GABONAK  
2024

*gehigarri berezia*





*Abenduaren 24 ,25 eta 31 eta urtarrilaren 1ean itxita  
ondo hasi 2025 urtea!  
eta zatoz gure aurtengo sagardoa dastatzera!!*

**txinparta**  
SAGARDOTEGIA

**Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak**  
**Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00**

## 100 OTAR BANATUKO DIRA ABENDUAREN 29AN

**A**benduaren 1eko Hurbilago-  
ren Udazkeneko Azokan aur-  
keztu zuten 650 Usurbil Bizi  
otarra eskuratzetik gertuago egon  
zaitezkete. Izan ere, hilaren 2az  
geroztik abenduaren 28an zozke-  
tatuko diren herriko sorkuntzaz eta  
ekoizpenaz ondo baino hobeto hor-  
nituriko ehun otarrak etxeratzeko  
ahalegina egiten has gaitzke. Ho-  
rretarako, herriko saltokietan eros-  
ketak egin baino ez ditugu; 10 eu-  
roko erosketen truke, zozketarako  
txartelak jaso ahalko dira. Norbere  
datuekin osatu eta erosketa egini-  
ko saltokian bertan kokatua egongo  
den kaxan sartu beharko da.

### 100 otar zozkatuko dira

Abenduaren 28ra arteko epealdia  
egongo da zozketan parte hartzeko.  
Izan ere, zozketa bera hilaren 28an  
egingo da. Biharamunean, hilaren  
29an banatuko dira otarrak fron-  
toian egongo den ekitaldian.

Segidan duzue, otar hauen  
zozketan parte hartzeko txartelak  
non eskuratu ahalko dituzuen baita  
otar hauetan zer nolako produktuak  
izango dituzten. 18 kultur sortzai-  
leek eta 12 ekoizleek bat egin dute  
aurten ekimen honen hirugarren  
edizioarekin; 30 guztira, iaz baino  
bat gehiago.



10 euroko erosketen truke, txartel bat jasoko duzu. Datuekin bete txartela eta saltokian bertan aurkituko duzun kutxan sartu. Abenduaren 28an argituko dira sarituen izen-abizenak.

### 2023KO UZTA

**“Abenduaren 28ra  
arte egongo da  
parte hartzeko aukera.  
Otarra abenduaren  
29an banatuko dira”**

### 650 Usurbil Bizi otarra

- Zozketatuko diren otarrak: 100.
- Parte hartuko duten ekoizle eta sortzaileen kopurua: 30.
- 18 kultur sortzaile (idazleak, moda

diseinatzaileak, musikariak, aldizka-  
riak edo musika tresnen egileak).  
- 12 ekoizle (jakiak eta sagardoa).

### Txartelak eskugarri egongo diren dendak:

Ane ile-apaindegia, Aizpurua okin-  
degia, Alkartasuna kooperatiba,  
Arruti harategia, Artzabal jatetxea,  
Enar estetika, Esnaola janaridenda,  
NI ile-apaindegia, Intza ile-apain-  
degia, Iratze naturdenda, Laurok,  
Lizardi liburu-denda, Lurda mer-  
tzeria, Opilgoxo, Otargoxo, Usurbil  
optika.

## ABENDUAREN 28RA ARTE EGONGO DA KANPAINA MARTXAN

### Abenduak 2-28

Gabonetako otarren zozketan par-  
te hartzeko txartelak eskuratzeko  
aukera, herriko saltokietan eginiko  
10 euroko erosketen truke. Txarte-  
lean izen-abizenak idatzi eta denda  
horretan egongo den kutxan sartu  
beharko da. Ekimen honetan parte

hartuko duten saltokietan kartelak  
jarriko dituzte, bezeroek identifika-  
ditzaten.

### Abenduak 28, larunbata

Otarren zozketa saltokietan. Saltoki  
bakoitzak bere zozketa egin eta sa-  
rituari jakinaraziko dio egun berean.

### Abenduak 29, igandea

13:00 Otarren entrega ekitaldia  
Usurbilgo frontoian.

### Informazio gehiago

gertuago@gertuago.eus helbi-  
dean edo 652 085 811 telefono  
zenbakian.

## URTEKO AZKEN IRAKURKETA SOLASALDIA

Oparoa izan da beste behin, Sutegi udal liburutegiaren aurtengo dinamika. Urtea agurtzeko egun gutxi geratu arren, oraindik badute hitzordurik antolatuz. Urtarrila hasierara arte erakustaretoan 2024ko Usurbilgo sorkuntza uzta ikusgai jartzearekin batera, azken irakurketa solasaldia iragarri dute abenduaren 23rako. Gaztetxo guztiak oporraldi betean izango diren goiz horretan, 11:30ean hasiko da saioa. Yolanda Arrieta herrikideak bideratuko du. Roald Dahlen "Sorginak" izango dute mintzagai. 11 urtetik gorakoei zuzenduriko hitzordua izango da.



Yolanda Arrietarekin batera, Roald Dahlen 'Sorginak' liburua aztertuko dute Sutegin.

Ondo pasa  
Gabonetan!



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua    Dermofarmazia

Produktu homeopaticoak    Maisu formulak



# POSTONTZI BEREZIAK, OLENTZERO ETA MARIDOMINGIRI ZUZENDUTAKO GUTUNENTZAT

Heltzear dira Mari Domingi eta Olentzero. Abenduaren 23an 18:00etan iritsiko dira Aginagara eta Eliza Zaharrean egingo diete lehen harrera. Biharamunean, Santueneara helduko dira 18:00etan. Lehenago, 17:30ak aldera Kalezarre eta handik abiatutako kalejiraren amaieran, Usurbilgo herri erdigunean egingo zaie azken harrera.

## Postontzien kokaguneak

Kalejira eta ongi etorri hauen hari-ra, izango da honez gero, eskaera

hainbat egin nahi dizkien aipatu bi pertsonaiei. Haietzako guztientzako idatzitako gutunak biltzeko postontziak jarri dituzte guneotan: ikastolan, Aginagako eta Zubietako eskola txikietan, Santueneko eta Aginagako zaharren egoitzetan, liburutegian, ludotekan, Potxoenean eta Txokoargin.

## Apaingarriak, eremu gehiagotan

Azken urteotan, Hurbilagoren etxolek argiztatu izan dituzte eguberriak. Aurten, ordea, urte garai honetako giroa eremu gehiagotara



Postontziak hainbat tokitan ipini dituzte.

hedatzea erabaki dute. Jokin Eizagirre herrikidearen apaingarriak Usurbilgo herri eta auzoetara zabalduko dituzte oraingoan.


**AIZPURUA**  
**OKINDEGIA**

**OGIAK**  
**GOZOGINTZA**  
**TARTAK**  
**ARDOAK**



*Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!*

**KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20**



**AIALDE**  
**BERRI**  
**SAGARDOTEGIA**  
☎ **943 36 50 31**

*Ondo pasa Gabonetan!*

## SANTUENEA, GABON GIRO BETEAN

Gabonetako azokarekin urte garai honetako ospakizunetan murgildu da Santuenea.

### **Abenduak 21, larunbata**

■ 18:30 San Tomas Eguna, txistorra banaketa.

■ Santuenea Kultur Elkarteko bazkideen artean otarren zozketa eta umeen artean txerritxoaren zozketa Santuenea 12an. DJ Gorka Mendik girotuko du.

### **Abenduak 23, 27, 30**

■ 11:00-13:00 Irristaketa ikastaroa frontoian eta eskubaloi pistan.

Beharrezko materiala: kaskoa, babesgarriak (eskumutur eta ukalondoetarako eta betaurrekoak) eta patinak.

■ Prezioak: haur eta gaztetxoek 15 euro (Santuenea K.E.-ko bazkideek 5 euro) 18 urtetik gorakoek, 25 (10 euro Santuenea K.E.-ko bazkideek).

■ Informazioa, izen-ematea: 621 095 644 /santueneake@gmail.com

### **Abenduak 24, asteartea**

■ 18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.

Antolatzailea: Santuenea KE.



Abenduaren 21ean txistorra banatuko dute.

 **EROSKI**  
city

*Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!*

Kale Nagusia 10, USURBIL  
Tel. 943 36 11 82

*Zorionak eta urte berri on!*

**ALKARTASUNA**  
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

**ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASERRIA HERRIA BIZIRIK**

Atallu industrialdea 26 ☎ 943 361 114  
alkartasuna@usurbil.eus www.alkartasunausurbil.eus



**ANDATZA TABERNA**

*Ondo pasa  
Gabonetan!*

**ABENDUAK 24 eta 31**

**8:00-17:00**

**ABENDUAK 25 eta URTARRILAK 1**

**9:00-14:00 eta 17:00-20:00**

*(pikoteoa bakarrik, bazkari eta afaririk ez)*

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



*Neguko Jaietako  
Eskaintza Berezia*

*Eramateko*

TXANGURROZ BETERIKO PIPERRAK	8,00€ (3 unit.)
URDAIAZPIKO KROKETAK	8,00€ (8 unit.)
ARRAI ZOPA TXIRLEKIN (450ml)	6,00€ PERTSONAKO
BAKILAOA SAL TSA BERDEAN	9,50€ PERTSONAKO
TXEKOR MASAILAK (180g)	12,50€ PERTSONAKO

ABENDUAK 20tik URTARRILAK 8ra

943 36 91 39



**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA



*Zorionak eta urte berri on!*

Ebetea Ramon

**Atallu**  
AUTOAK

**Atallu**  
AUTOAK

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
DOHA INIK IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

**EuroTaller**

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

*Zorionak eta urte berri on!*

**ATXEGA JAUREGIA**  
JATETXEA

EGUNEKO MENUA  
EGUNEKO PLATERA  
ASTEBURUKO MENUA  
KARTA  
RAZIOAK  
OGITARTEKOAK  
PINTXOAK

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

## ERRIORA BEGIRA

Sarritan aipatu izan da Oriari bizkar emanda bizi garela. Baina errealitate hau iraultzeko saiakeretan ari dira, esaterako, Aginagan. Azken bi urteotako jaieran, Erriorearen Eguna antolatu izan dute eta Oriaz piraguan, arraunean, alan edota eguraldia lagun, baten batzuk baita igerian ere gozatu izan dute bi edizio horietan. Antolatzaileek, ordea, hasieratik jailetako egun soil bat izatetik nortasun propioa izango duen eguna izateko apustua egin dute, erriolari lotutako kultura plazaratu eta kultura horren transmisioa eten ez dadin.

Erriorearen Egunaren bigarren edizioa ospatu den urte hau agurtu aurretik, Oriaren protagonista izango duen bigarren hitzordua antolatu dute igande honetarako, abenduaren 22rako Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneak, Antxomolantxa elkarteak eta NOAUA! Kultur Elkarteak. Arratsaldeko 17:30ean hasita, "Errio" izeneko dokumentala proiektatuko dute Aginagako Eliza Zaharrean. Segidan, gainera, adituen mahai batek eskainitako solasaldia izango da. Xabier Agotek (historialaria, Albaolako sortzaile eta lehendakaria), Lurdes Odriozolak (historialaria) eta Xabier Alberdik (historialaria) parte hartuko dute. Haiekin hitza hartuko dutenen artean izango dira baita ikus-entzuzko lan honen egileak ere; Ibon Gaztañazpi eta Nagore Urdapilleta zuzendariak. Ekitaldirako gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dituzue aurrez edota baita NOAUA! Kultur Elkartearen goitizan.

### Altxorak ikusgai

"Errio" dokumentaleko protagonista zuzendarietako bat izango



Orion egin zen Errio dokumentalaren estreinaldia. Aginagan ikus ahal izango da abenduaren 22an, 17:30etik aurrera, Aginagako Eliza Zaharrean. Argazkia: Jabier Zabaleta.

### 'ERRIO' DOKUMENTALA

#### **Abenduaren 22an, Oriako arroari buruzko dokumentala eskainiko dute Aginagako Eliza Zaharrean**

da, Nagore Urdapilleta bera, "Oriaren ibaian gora abiatuko den arraunlaria. Errioreak gordetzen dituen altxorak deskubritzen joango da bidaian, pertsonaia desberdinen bitartez". Izan ere, dokumentalaren sinopsiak gogorarazi moduan, "Oriaren ibaiko arroan burdingintza eta ontzigintzari lotutako jarduerak izugarria garatu zen Erdi Aroan". Egileek Oriaren Rhin edo Tamesis ibaien pare jartzen dute, baina desberdintasun nabarmen batekin; milioika pertsona bizi dira aipatu bi ibaien bueltan, milaka batzuk baino ez dokumentalean agertuko duten Oriaren eremuan.

Iraganeko erriore bidaiautoko dute dokumentalaren ikus-entzuleek. "Historia aurrean hasi ziren lehen gizakiak erriore inguruko zonaldeak okupatzen. Horren erakusgarri da Altxerriko leitzea, animalien irudi zaharrenetarikoa topatu diren Europako kobazuloa. Orografia aprobetxatuta, burdinola ugari sortu ziren Oriaren adarretan, eta merkataritzak bultzatu zuen Oriaren hiri sorrera. Balea arrantzak eta ontzigintzak ogibidea eman ziren oriotar askori. Askotan ezkutuan geratu ohi da prozesu historikoetan emakumeak jokatu zuten rola, eta alderdi hori ere azaleratzen du lanak".

Horrez gain, "itsas ondareak erabat zizelkatu zuen Oriaren, eta herriaren gaur egungo nortasuna eta ezaugarriak ulertzeko ezinbestekoa da. Baina ez bakarrik herriarena. Lurraldeko egitura instituzionalak finkatzeko garaian giltzarriak izan ziren sektore industrial horretan buru-belarri aritu ziren eragileak".



**G** Auto Guria s.l



**Auto Guria**  
Mobil Service

**Auto Konponketa**  
**Pre I.T.V.**  
**Marka guztiak**

**943 363 298**

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

edaritegia  
**BORDATXO**

Pintxo bereziak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

*Zorionak eta  
urte berri on !!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42

**Aguirrezabal**  
**Estankoa**

*Zorionak  
eta urte berri on!*

kale Nagusia, 27.  
☎ 943 361 110

*Ondo pasa  
gabonetan!*

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**5. URTEURRENA!**

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

**SALEROSKETA & ALOKAIUA**

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

**NOAUA! GEHIGARRI BEREZIA**  
**herriko taldeak**

## GAZTELEKUTIK TXURI URDINERA

**A** benduaren 20tik 26ra jardunaldiak antolatu ditu Elkar-guneak. Bilgune horretako kide da Gaztelekua. Ziklo horretako hitzorduoz gain, azken urteotan arrakastatsua suertatu diren irteerak antolatu ditu asteotan oporraldi betean izango diren gazteentzat. Donostiako Txuri Urdinera irteera bana antolatu dute abenduaren 23an eta 27an.

Ekimen honi buruzko informazio gehiago bideotatik jaso ahalko da: Gaztelekuan, gaztelekuausurbil@gmail.com helbidean edo 688 813 853 telefono zenbakian.



Abenduaren 23an eta 27an, Gaztelekukoek irteera bana antolatuko dute.

# URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75  
943 36 72 64

**ERAIKUNTZAK**  
**OBRAK**  
**BERRITZE LANAK**

[urdaintzi@euskalnet.net](mailto:urdaintzi@euskalnet.net)

IT-ak egiten  
dira

*Ondo para  
saboneta!*

# Inaki Iturgintza

*Ondo pasa  
gabonetan!!!*

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

## 600 024 825

info@inakiiturgintza.com--www.inakiiturgintza.com

# KAMDEN

hizkuntzak

English courses

**Merry Christmas to all!!**  
See you in January

Ondo pasa Gabonak!!

**Ordutegia:**

16:00-20:00

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17  
[www.kamdenhizkuntzak.com](http://www.kamdenhizkuntzak.com)



Tel.: +34 943 36 32 90

[www.autocares-aizpurua.es](http://www.autocares-aizpurua.es)

AUTOBUSAK  
*Aizpurua*

*Zorionak eta Urte Berri on!*

# MIROTZEN OMENEZKO ESKUBALOI TXAPELKETA

**O**roimena eta kirola uztartzen dituen klasiko baten itzulera. Aurten, abenduaren 27rako iragarri du Usurbil Kirol Elkarteak Mirotzen omeneko eskubaloi txapelketa. Kadete eta infantil mailako sei klubetako neska-mutilak lehiatuko dira Oiardo kiroldegian egun osoz. Goizeko 9:00etan hasi eta iluntzera arte luzatuko da, bazkalorduko tartea salbu, etenik izango ez duen eskubaloi maratokia.

Ohiko sari banaketarekin amaituko dute ekimen honen hamalagarren edizioa. Besteak beste, antolakuntzak soilik ez, neurketetan parte hartuko dute baita usurbildarrek. Nesken zein mutilen artean talde bana ariko da lehiatzen.

Partidak laburrak izango dira, orduerdi baino gutxiagoko iraupe-nekoak. Bizi joango da, beraz, aurtengo Mirotzen omeneko eskubaloi txapelketa ere. Segidan dituzue antolakuntzak, Usurbil Kirol Elkarteak, helarazitako xehetasunak:

## **Mirotzen omeneko infantil eta kadete mailako 14. Eskubaloi Txapelketa**

- Eguna: abenduak 27, ostirala.
- Tokia: Oiardo kiroldegia.
- Ordutegia: 09:00-19:15.
- Parte hartzaileak: Usurbil K.E., Tolosa C.F., Pulpo E.K., Basauri E.T., Anaitasuna, Zarautz Z.K.E.

### **Neskak**

- 09:00 Usurbil K.E.-Tolosa C.F.
- 10:00 Pulpo E.K.-Aiala Z.K.E.
- 11:00 Usurbil K.E.-Basauri E.T.
- 12:00 Pulpo E.K.-Anaitasuna.
- 13:00 Tolosa C.F.-Basauri E.T.
- 14:00 Aiala Z.K.E.-Anaitasuna.
- 16:00 5. eta 6. postuak.
- 17:00 3. eta 4. postuak.



Nesken zein mutilen artean, Usurbil KE-ko bi talde ariko dira lehian.

### ■ 18:00 Finala.

### **Mutilak**

- 09:30 Usurbil K.E.-Pulpo E.K.
- 10:30 Tolosa C.F.-Amenabar Z.K.E.
- 11:30 Usurbil K.E.-Basauri E.T.
- 12:30 Tolosa C.F.-Anaitasuna.
- 13:30 Pulpo E.K.-Basauri E.T.
- 14:30 Amenabar Z.K.E.-Anaitasuna.
- 16:30 5. eta 6. postuak.
- 17:30 3. eta 4. postuak.
- 18:30 Finala.

### **Sari banaketa**

- 19:15 Sari banaketa.

### **Oharrak:**

- Partidak bi zatiko 12 minutukoak izango dira, minutuko atsedenaldirekin.
- Finalak 15 minutuko bi zatikoak izango dira.
- Bazkaria Agerialdeko jangelan egingo da, 13:00-15:30 artean.
- Antolatzailea: Usurbil Kirol Elkarteak.

## **IRISASI BTT HOTZAK AKABATZEN**

Gogoan izan, bestalde, zabalik segiko duela asteotan, Usurbilgo 2025eko lehen kirol proba herrikoian parte hartzeko izen-emateak; urtarrilaren 26an egingo den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako inskripzio aldiak hain zuzen.

### **Izen-ematea**

Web orrialde honetan eman dezakezue izena: [kronoak.com](http://kronoak.com).

### **Bizikleta elektrikoarekin ere parte hartu ahal izango da**

Bi ibilbide izango dituzue aukeran. Bizikleta elektrikoarekin ere parte hartu ahal da.



# ANORGA TXIKI S.L.

## KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!  
perfil bertikalik gabe!!  
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!  
aukera zabalak!



·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak  
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

# ECCMAX



ECCMAX-eko taldeak jai zorionsuak eta indarra  
opa dizkizue urte berrirako

# NOAUA! BABESTEAK SASKIA DAKAR



Gari Udabe, NOAUA!ko bazkidea, saskia eskuetan duela.



Publizitate arloko saskia Aparicio dekorazioari egokitu zaio aurren.

Beste modu batean esan daiteke, loratuago akaso, baina zehatzago nekez: NOAUA! babesteak saria dakar (kasu honetan, sas-

kia). Orri honetan dituzue lau adibide garbi.

Urtean zehar hainbat zozketa egiten baditugu ere, gabonetakoak du tra-

diziorik handiena eta estimaziorik handiena ere bai.

Ohi bezala, gabonen atarian saski bat zozkatu dugu bazkideen artean

eta, beste bat, astekarian publizitatea jartzen duten bezeroen artean. Goiko argazkietan dituzue aurrengo irabazleak. On egin!


## ERRIGORAKO BI SASKI ZOZKATU DITUGU BAZKIDEEN ARTEAN

Udazken partean, Errigorako saskien kanpaina sustatu genuen. Nafarroako euskalgintza-ren eta lehen sektorearen aldeko ekimena ez zen oharkabean pasa eta saski ugari banatu ziren Usurbilen.

Errigorakoek, NOAUA!k egin-dako bitartekari lana eskertu nahian, bi saski oparitu zizkiguten. Eta guk, bazkideen artean zozkatu ditugu bi opariak. Argazkietan dituzue irabazleak.



Miren Agorretari tokatutako saskia jasotzera Patxi Pagola etorri zen.



Asun Eraunzetamurgil Etxezarreta, Errigorako saskia jaso berrian.

**MIKEL  
ARRANDEGIA**

MIKEL ARRANDEGIA

Zorionak eta urte berri on!

San Inazio, 1 • 943 366 356

**mur**  
errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak  
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL

murerrotuluak@gmail.com

Patrienea Jatetxea  
Bazkariak, astelehenetik igandera  
Afariak, ostirala eta larunbata

**Patri**

kale nagusia 14. **USURBIL**  
t 943 362 725 - 688 690 361

**antenas  
Telemar**

ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK  
OBRARIK GABE!

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan  
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

## ERREGE MAGOEN KABALKADA URDAIAGATIK IRITSIKO DA GURE ARTERA

Ziortza Gazte Elkarteak errege magoen kabalkadaren inguruko xehetasunak iragarri ditu. Urtarrilaren 5ean, postari bat hurbilduko da eguerdi partean Usurbilgo frontoira. Bera arduratuko da gutunak jasotzeaz. Kabalkada berriz, arratsaldeko 17:00etan abiatuko da.

Urtarrilaren 5erako ekitaldi ugari prestatu ditu Ziortzak. Goiz partean, eskutitz tailerrak, jolasak eta postariaren etorrera. Eta arratsalderako berriz, kabalkada ikusgarria.

Errege magoak 17:00etan abiatuko dira Urdaiagatik eta 19:30ak aldera iritsiko dira Usurbilgo erdigunera.

### Urtarrilak 5 igandea Erregeen Kabalkada

- 11:00 Eskutitz tailerra eta muralaren irekiera.
- 12:00 Postariaren etorrera eta jolasak postariekin.
- 12:30 Postariari eskutitzak eman.
- 17:00 San Estebandik irteera.
- 19:00 Errege magoen iritsiera Usurbilgo frontoira.
- Antolatzailea: Ziortza G.E.



Kabalkada 17:00etan abiatuko da.



# Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

☎ 943 634 536 🌐 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)

Urte berri on!



# ANTONIO URRUZOLA ARROZTEGIA

Zorionak eta  
urte berri on!

943 376 415  
687 845 599

Asteasuain Industrialdea, 3.

**ZENDOIA NEA**  
taberna

*Ondo pasa  
Gabonetan!*



*NAGUSIA 35, USURBIL*



## GABONETARAKO BEREZITASUNAK!

Abenduak 9tik 20ra

### FRESKOAK:

Baserriko txahal azpizuna  
Entrekota  
Baserriko txahal txuleta  
Behi PREMIUM azpizuna  
Behi PREMIUM txuleta  
Antxume  
Arkume  
Txerrikume  
Iparraldeko hegaztiak



### PRESTATUAK:

Etxeko frijitu aukera zabala  
Arrai pastela  
Foie xerratxoak  
Txahal masaiak saltsan  
Arkumea tenperatura baxuan eginda  
Txerrikumea tenperatura baxuan eginda  
Panetone Siziliarra...  
Iberiko aukera zabalak...



ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81  
677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com

# Otar-Goxo

*E l i k a g a i a k*

# OIER AGIRRESAROBEBE: "DENAK DU BERE HIZKUNTZA, ETA EZINEZKOAK ERE BAI"

**G**abonetan ezinezkoa ere posible bilakatzen omen da, hori dio behintzat kondairak. Horixe bera egingo du abenduaren 28an gala magikoa antolatu duen Oier Agirresarobe herritarrak ere. Bost mago eta magiarekin ezinezkoa ere egia bilakatzen ahaleginduko dira "Sasi guztien gainetik..." ikuskizunean. Sutegin izango da hori 18:00tatik aurrera.

**Gala magikoa antolatu duzu abenduaren 28rako. Lehen aldia duzu halako neurriko zerbait antolatzen. Nolatan hartu duzu hau antolatzeko erabakia?**

Mago asko ezagutzen ditut inguruko herrietakoak. Bakoitzak bere gala propioa izaten du edo jaialdi oso bat. Nik ere hori nahi nuen. Usurbilen ez dago beste magorik eta horrelako zerbait egitekoan nik izan beharko nuen.

**Bost magok hartuko duzue parte galan. Bakoitzak magia diziplina ezberdin bat erakutsiko du edo nola antolatu duzue?**

Normalean, magian hasten zarenean kartekin trukuak egiten hasten zara. Kaxa batean norbait sartu eta erditik moztu, edo uretan sartu pirañekin eta halakoak ez dira egiten, edo ez hasieran behintzat. Gertuko magia egiten dugu kartekin eta halakoak. Antzeko kontuak egingo ditugu.

**Herrian magia saioaren bat egin duzu. Oraindik ere urduri jartzen zara taularatzean?**



Oier Agirresarobek magia ikuskizuna eskainiko du abenduaren 28an, Sutegin.

## OIER AGIRRESAROBEBE

*"Gertuko magia egiten dugu, kartekin eta halakoekin"*

Urduri beti jartzen gara, baina normalean horrek ez du gure erakustaldian oztoporik suposatzen. Nire arazoa behintzat, ez da hori.

**Gidaritza lanetan ere arituko zara zu. Lehen aldia duzu aurkezle lana eta halako pisua hartzen?**

Normalean magia ikuskizuna antolatzen duena izaten da aurkezlea eta gainontzekoak gonbidatuak izaten ditu. Magia galetan aurkezleak magia egiten du tarteteetan.

**Eneko Gutierrez legazpiarra, Maria Arandia erreteriarra, Iago Azkue azpeitiarra eta Oier Jurado markinarra izango dituzu lagun. Mago gazteen belaunaldi berria zaretela esango zenuke?**

Denok ez gara adin berekoak, gehienek 18-22 urte bitarte dituzte eta nik 14 egin berri ditut. Hitzaldi, ikastaro eta magia jaialdietatik ezagutzen ditut denak eta lagun handiak gara.

**Nola ikasten da magia egiten? Badaude ikastaroak edo autodidakta izan behar da?**

Asko joaten naiz mendira familiarekin eta mendiko txaboletara lotara joatean, batzuetan jendea egoten da. Behin, gizon bat aurkitu genuen ogi xerra bat eta saltxitxoi pixka bat baino ez zeukana,

eta guk espagetti beroak geneuzkanez, batzuk eman genizkion. Horren truke, opari bat egin nahi zigula esan zigun, ez objektu bat, baina bai zerbait. Magia egin zigun kartekin. Afizionatua zen, ez zen benetako magoa, eta hark erakutsi zizkigun truko batzuk. Horrela hasi nintzen. Interneten gauza pila bat daude gaur egun eta gehienak mustruk izaten dira. Mundu horretan sartuta, magoak ezagutzen hasten zara eta jaialdietara joaten. Magia elkarte bat bada Donostian, eta noizean behin ikastaroren bat ere egiten dute. Parte hartu nuen haietako batean. Lokal batzuk badaude eskola eta denda dituztenak. Aukerak badaude nahi duenarentzat. Materiala erosteko ere mila aukera daude. Ikasteko modurik onena magoekin egon eta magia egitea da.

## **Zer da magia? Ez da galdera erraza baina zuk nola definituko zenuke?**

Nire bisita txartelean honakoa jartzen du: "Denak du bere hizkuntza eta ezinezkoak ere bai". Ezinezkoaren hizkuntza da magia. Hausnarketa horren ondorio dela esango nuke. Nire ikuskizunean azaltzen dut zergatik naizen magoa. Galdera horri ikuskizunaren amaieran emango diot erantzuna. Zergatik ez nago etxean txanponak biderkatu eta dirudun bilakatzen? Hori eginda niretzat lortuko nuen onura, baina jendaurrean magia eginda, bai nik eta bai ikusleek ere onura izango dute.

## **Magian nora iritsi nahi zenuke?**

Ahal den lekuraino, dena nahi dut. Komunitatearen barnean ondo jarritako magoa izan nahi dut, ez bakartia dena. Lehiaketak ere izaten dira elkarteak ordezkatzeko. Mundu oso zabala da.



lazko abenduan, magia ikuskizun bat eskaini zuen udal liburutegian.

## **“MAGO GAZTEEN BELAUNALDIA BADATOR”**

### **Nola praktikatzen duzu? Gurasoen aurrean?**

Bai, normalean gurasoei erakusten diet ikasitakoa. Arrebari ezin diot ikasitakoa erakutsi, jada nazka-nazka eginda daukat eta. Ez ditu truko gehiago ikusi nahi. Beste magoekin konparatuta iruditzen zait gutxi praktikatzen dudala. Etxean trukoak erakutsi eta gero, seguru sentitzen banaiz, lagunei edo edozeini egiteko gai izaten naiz. Angelu kontua ere izaten da askotan, atzean edo mauka barnean ezkutatu behar izaten ditugulako objektuak. Halakoetan, aukera ona izaten da grabatzea eta ispilu borobilak ere badaude angulu bakoitzetik zer ikusten den kontrolatzeko. Nik hori ez daukat, baina askok erabiltzen dituzte.

### **Gurasoek harrapatzen dituzte trukoak?**

Batzuk oso onak dira eta ez naut harrapatzen. Dakidana prakti-

katzen dut normalean, ez gehiago ikasita, baizik eta ezagun hori gehiagotan errepikatuta. Truko asko daude. Ni ez naiz truko asko egiten dakien magoa, egia esan.

### **Magia erakustaldiak indartzzen ari dela. Hala al da?**

Nik urtebete baino ez daramat magian eta badut sentsazioa indarra duela. Lehen gala txikiak egiten ziren, eta orain kongresuak ere egiten dira. Espainian mago famatu dezente daude eta azkenaldian asko ari dira mugitzen. Mago gazteen belaunaldia ere badator. Gasteizen Espainiako kongresurik garrantzitsuena egiten dute, batzuen ustez Europako garrantzitsuena dena. Fournier karten omenez egindako kongresua izaten da eta bertan izan nintzen irailean hango mago handien eskutik ikusi eta ikasten. Hitzaldiak eta denetariko ekitaldiak izaten dira bertan.

# 'USURBIL 58', OPARITZEKO MODUKO DOKUMENTALA

Juanito Illarramendiren irudi zahar batzuk baliatuz, 'Usurbil 58' izeneko dokumentala aurkeztu genuen azaroaren 24an, Sutegin. Estreinaldi arrakastatsuen ondoren, DVD-USB euskarrietan jarri genuen salgai eta lehen edizioa agortzeaz da. Alerik gabe geratzeko arriskuaren aurrean, bigarren edizioa jarri dugu martxan. Oraindik eskuratu ez baduzu, jakizu dokumentala Laurok eta Lizardi liburutendetan eskuratu dezakezula, 10 eurotan. NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan lor dezakete, baina kasu horretan NOAUA!ko bulegora hurbildu beharko dute.

Orain urtebete, 'Usurbil 58' izeneko artxibo bat topatu genuen Euskadiko Filmategian. Super8 kamera batekin grabatuta zeuden irudiak, baina audioa zuten faltan. Juan Illarramendik hartutako irudiak zirela, datu hori ere bazetorren artxiboan. Eta ezer gutxi gehiago.

Horregatik, irudietako soinu falta ordezkatzeko, adin bat duten herriarregana jo genuen, informazio eske. Garai hartako Usurbil eta garai hartako usurbildarrak ezagutu zituztenak: Asintxio Pagola, Jaber Pikabea, Lurdes Urkia, Manuel Goenaga, Arantxa Alkorta, Kinttin Segurola, Arantzazu Aranburu eta Koro Iribar. Eurek eskaini dizkiguten azalpenekin osatu dugu dokumental honen soinu banda.

Zumarte Musika Eskolako Iñaki Mujika eta Roman Manterola ere elkarriketatu genituen propio



Koro Iribar, Kinttin Segurola eta Arantzazu Aranburu, dokumentalaren pasarte batean.

dokumentalerako, beraien eskutik iritsi zirelako irudiak Filmategira. Hori dena, grabazio egunetan deskubritu genuen eta halaxe jasoa dator Luis Jambrinak zuzendu duen ikusentzunezkoan.

Ixabel Agirresarobek gidatu zituena dokumentalean jasota dauden solasaldiak eta aurkezle-lanak ere berak egin zituen.

Aipagarria da, bestalde, Usurbilgo Udalaren ekarpena. Sormen lanetarako gordeta duen dirulaguntzari esker, kalitatezko ikusentzunezko bat ekoizteko aukera izan dugulako.

## DVD eta USB euskarrietan eskuragarri

Arestian aipatu bezala, 'Usurbil 58' dokumentala salgai ipini dugu eta dagoeneko ale ugari saldu dira.

Bi artxiboz osatua dago DVD-USB

euskarrietan plazaratu dugun lana. Batean, dokumentalaren muina diren irudiak ageri dira. Juan Illarramendik Super8 kamera batekin due la 66 urte grabatu zituenak. Artxibo honek 20 minutuko iraupena du.

Beste artxiboan, Illarramendiren irudiak baliatuz osatu dugun dokumentala ikusiko duzue. 50 minutuko iraupena du pieza honek eta irudiak bezain jakingarriak dira solaskide guztiek eskaini zizkiguten azalpenak.

## Salmenta puntuak

■ Lizardi eta Laurok dendetan, eta NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

■ Prezioa: 10 euro. NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan eskuratu ahalko dute, baina kasu horretan NOAUA!ko egoitzara etorri beharko dute erostera.

Zorionak eta urte  
berri on!



943 37 11 18 - 672 23 83 01 - [www.pikabea.eus](http://www.pikabea.eus)

ZORIONAK **Cambridgeko** azterketak  
gainditu dituzuen guztioi !



**Cambridge ESOL**  
Exam Preparation Centre

#### Proficiency CPE

Jon Howick Iriberrri

#### Advanced CAE

Nora Martinez Moto  
Peru Agirresarobe Rivadeneya  
Udane Leon Plaza  
Uxue Larrea Urrea

#### First FCE

Aimar Iraeta Agirre  
Ane Beguiristain Zurriarain  
Anje Labaka Iribar  
Arane Aguirre Rivera

#### First FCE

Axel Flores Camino  
Eneko Matxain Vizoso  
Eneko Rodriguez Aguirre  
Iban Olasagasti Britt  
Irai Mayan Crespo  
Irati Izeta Enriquez  
Izaro Lopez Errondosoro  
Janire Corral Zuloaga  
Jon Uribarrena Arruti  
Josu Corral Zuloaga

Leire Velasco Eizaguirre  
Libe Garcia de Eulate Soroa  
Nahia Gonzalez Retegi  
Naia Rodriguez Agra  
Noa Arruti Arruti  
Noa Eguren Oyon  
Zihara Saez de Urabain  
Torregaray



Merry Christmas  
and Happy New Year!

686 499 775 (Toby) • [tobyngana@hotmail.com](mailto:tobyngana@hotmail.com) • Alperroburu 2, Usurbil

# GABONETAKO PARKEA URTARRILEAN ZABALDUKO DA

**A**steburu honetatik aurrera, bi aste pasatxoko oporraldian murgilduko dira etxeko txikienak. Urtarrilaren 6a igaro arte ez dira ikasgeletara itzuliko. Tarte honetarako, eskaintza oparoa prestatu dute haientzat hainbat eragileek; besteak beste, urte luzez hutsik egiten ez duen Gabonetako parkea.

## Oiardo kiroldegian

Ohi bezala, jolastoki handia izango da Oiardo kiroldegia hiru egunez. Sarrera doakoa izango da. Puzga-

rriak, tailerrak eta bestelako proposamen entretenigarriak kokatuko dituzte bertako kirol pistan. 2-12 urte artekoei zuzendua egongo den gabonetako parkea egun eta orduotan zabalduko dute:

### Gabonetako parkea

- Egunak: urtarrilak 2, 3 eta 4.
- Orduetgia: Goizez, 11:00-13:00. Arratsaldez, 16:30-19:30.
- Nori zuzendua: 2-12 urte arteko gaztetxoei.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Urtarrilaren 2tik 4ra, Oiardo kiroldegian.

**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**

Ondo pasa Gabonetan!

**GABONETARAKO ESKARI BEREZIAK PRESTATZEN DITUGU!**

- Arrai zopa · Txipiroiez betetako pikilo piperrak
- Txipiroiak (pelaio erara)
- Kroketak (urdaiazpiko eta onddoenak)
- Legatza saltsa berdean · Bakaioa (bizkaitar erara)
- Txekor masailak · Arkumea saltsan
- Etxeko Foie "Mi cuit-a"

*eta berezitasun gehiago!!! galdeiguzu eta egin zure eskaera!!!*

24 eta 25erako eskaerak 15erako beranduenaz eta 31 eta 1erako eskaerak 22rako beranduenaz

**943 21 88 40** IRAZU KALEA 6, USURBIL

Ondo pasa gabonetan!

# ARANKA

## BERRIKUNTZAK

- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel.: 606 37 21 05

[info@arankaberrikuntzak.com](mailto:info@arankaberrikuntzak.com)

USURBIL

Ondo pasa gabonetan!

guria

taberna

abenduak 24 eta 31  
20:30tan itxiko dugu  
abenduak 25 eta urtarrilak 1  
14:30tan itxiko dugu

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

JARRAI IEZAGUZU SARE SOZIALETAN

USURBILGO ALBISTEAK KLIK BATEAN

ARGAZKIAK

ALBISTEAK

www.noaua.eus

@noauaastekaria @noaua Noaua Aldizkaria @noauatb

## LASTERKA, HERRI MERKATARITZAREN ALDE

**H**erri merkataritzaren eta ostalaritzaren alde lasterka egingo urtea festa giro alai eta aldarrikatzailean agurtzeko gonbita egingo digu aurtengoan ere aipatu herri bilguneak.

### **Abenduaren 31n, 17:00etan**

Sektoreotako saltoki gehienak biltzen dituen Usurbilgo erdiguneari bi itzuli emanez, herriko ostalarien eta merkatarien bilgunearen izena daraman San Silbestre Herri Lasterketa antolatu dute abenduaren 31rako. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da frontoitik. Aipatu mo-

duan, bi itzuli emango zaizkio herriko merkatal eremuari.

### **Inskripzioa online egin daiteke**

Herriko ostalarien eta merkatarien elkarteak antolaturiko ekimenerako izen-emateko epea zabalik izango duzue hilaren 30era arte, gertuago eus atarian. Inskripzioa online egingen ez dutenek, lasterketa egunean bertan korrika abiatu aurretik ere frontoian izena emateko aukera eskainiko du antolakuntzak.

Aurreko urteen ildotik, opariak zozketatuko dituzte parte hartzaileen artean.



San Silvestre proba 17:00etan hasiko da.

## USURBIL 58 Dokumentala

### **Altzor txiki bat, opari handi bat**

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirrargarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filmategian. Juan Illarramendik grabatu zituen 1958 eta 1960 urteen artean. Orain arte ikusi gabeak. Sutegiko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, dokumentala eskuragarri duzue.

### **Dokumentala, salgai**

'Usurbil 58' argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da.

Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- **Juan Illarramendiren irudi originalak. 20'11".**
- **Irudi horiek baliatuz osatu dugun dokumentala: 51'16".**

**NOAUA!**ko bulegoan, **Lizardi** eta **Laurok** liburudendetan salgai.

**Prezioa:** 10 euro.

\*NOAUako bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUAlko bulegoan.





## LILATOIRAKO TALDE BAT OSATU NAHI DA

**E**makumeen lasterketa herrikoian, talde gisa parte hartzeko proposamena egin dute Emakumeon Etxeko sustatzaileek. Taldea osa daitekeen baloratzeko, parte hartu nahi luketen emakumeentzako izena emateko epe bat jarri dute, abenduaren 23ra bitarte, galdetegi bat beteta.

### Korrika ala oinez

Lilatoia korrika edo oinez egin daitekeenez, bi talde osatu daitezkeela proposatu dute. Lilatoia korrika edo oinez egiteko, bakoitzari erosoena zaion moduan.

### Lilatoia, otsailaren 23an

2025. urtean, otsailaren 23an izango da Lilatoia, emakumeen lasterketa herrikoia. "Hori horrela, Emakumeon Etxeko talde sustatzaileak Gabonen ondoren entrenatzen hasiteko proposamena egin du: taldea osa daitekeen baloratu nahi dute, beraz, Gabonen aurretik", udal iturriek aditzera eman dutenez.

Izena emateko epea horren arabera jarri duten arren, epe horretatik kanpo ere eman ahal izango da izena, Lilatoian parte hartzeko izen-ematea irekita dagoen bitartean.



Abenduaren 23an amaituko da izen-ematea.

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!**  
**[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)**

### **Abenduak 19, osteguna**

- Goizean zehar, Udarregi ikastolako gabonetako kantu-jira.
- 18:00 "Ama ta asunak" erakusketari lotutako hitzaldia Emakumeon Etxean: Elixabete Imaz eta Miren Aranguren eskutik.

### **Abenduak 20, ostirala**

- Goizean zehar, Aginagako eta Zubietako eskolen gabonetako ospakizunak.

#### **Elkarguneko jardunaldiak:**

- 18:00-21:00 Ziortzako San Tomas jaialdia.

### **Abenduak 21, larunbata**

- 18:30 San Tomas eguneko ospakizunak, Santuenea 12an.

### **Abenduak 22, igandea**

- 17:30 "Errio" dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Aginagako Eliza Zaharrean.

### **Abenduak 23, astelehena**

- 11:30 Irakurketa solasaldia Yolanda Arrietarekin udal liburutegian. 11 urtetik gorakoentzat.
- 18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera Aginagako Eliza Zaharrera.

#### **Elkarguneko jardunaldiak:**

- 12:00 Usurbilgo Memoria: ibilbide gidatua Mikel Laboa plazatik.
- 17:30-20:00 Aztarririk frontoian: Aztarririkaren bigarren eskuko truke-azoka.
- 18:00-20:00 Elkarguneko eragileen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.
- 20:00 Gabonetako topaketen irekiera Sutegiko aterpean.

### **Abenduak 24, asteartea**

- Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera:**
- 17:30 Abiatzea Kalezartik.

- 18:30ak aldera, Usurbilgo plazara iritsiera.
- 18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera Santuenean.

#### **Elkarguneko topaketak:**

- Goizetik, baseritar jantziekin.
- 11:00 Talogintza ikastaroa Usurbilgo talogileekin frontoian.
- 11:30-14:00 Elkarguneko eragileen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.
- 17:00 Aztarririk: Palestinaren aldeko kantujira frontoitik.

### **Abenduak 26, osteguna**

#### **Elkarguneko topaketak:**

- 11:30-14:00 Elkarguneko eragileen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.
- 17:00 Txirikorda: Usurbilgo lehen Etxebizitza Asanblada Herritarra (Txirikorda eta Aztarririka).
- 17:30 Sormen tailerra (Kulturgunea, Gaztelekua, Ziortza): antzerkia (Jontxu Martinez) eta eskulangintza (EITI), Anuk eta Elene solasaldi musikatua.
- Amaieran, merendola.

### **Abenduak 27, ostirala**

- 11:00-14:00 Boluntariotzari buruzko prestakuntza saioa Potxoenean. Antolatzailerak: ASEBIER elkarteak.
- 09:00-19:15 Mirozten Omenezko 14. eskubaloi txapelketa jokatu da Oiardo kiroldegian.

### **Abenduak 28, larunbata**

- 18:00 "Sasi guztien gainetik..." Usurbilgo I. Magia Gala Sutegiko auditorioan.

### **Abenduak 29, igandea**

- 13:00 650 Usurbil Bizi gabonetako otarren banaketa.

### **Abenduak 31, asteartea**

- 17:00 Hurbilago San Silbestre herri lasterketa Usurbilgo frontoitik.

### **Urtarrilak 1, asteazkena**

- 01:00 Andoni DJ frontoian.

### **Urtarrilak 2, 3, 4**

- 11:00-13:00 / 16:30-19:30 Gabonetako Haur Parkea Oiardo kiroldegian 2-12 urte artekoentzat.

### **Urtarrilak 5, igandea**

#### **Erregeen kabalkada:**

- 11:00 Eskutitz tailerra, muralaren irekiera eta gutunak jasotzea.
- 17:00 San Estebandik irteera.

### **Gabonetan zehar...**

#### **Truke azokarako bilketa**

- Abenduak 19-20.
- 17:30-19:30 Aztarririk bigarren eskuko truke azokarako material bilketa Sutegin.

#### **Irristaketa ikastaroa**

- Abenduak 23, 27, 30.
- 11:00-13:00 Santueneko gabonetako ekintzak: irristaketa ikastaroa auzoko frontoian eta eskubaloi pistan.

#### **Txuri Urdinera irteerak**

- Abenduak 23, 27.
- Gaztelekutik Txuri Urdinera irteerak.

#### **Usurbilgo Sareren deialdia**

- Urtarrilak 11, larunbata.
- 17:00 Sareren manifestazioa Bilbon. Autobus zerbitzua Usurbildik.

#### **Odol-ematea**

- Urtarrilak 13, astelehena.
- 16:30-20:10 Odol-ematea Udarregi ikastolako erdiko aretoan.
- Erakusketaren irekiera Sutegin.

txinparta  
SAGARDOTEGIA

txinparta  
JATETXEA

txinparta

SAGARDOTEGIA  
JATETXEA

Razioak, pintxoak,  
bokatak eta  
eguneroko  
menua



• Kafeak eta opilak  
• Eguneko menuak

CAFE-BOULEVARD-JATETXEA

Urbil merkataritza gunea

# Osasuna eta askatasuna. Urte berri on!

